



TELEFONIA MUGIKORREKO ERAMANGARRITASUNA EZEZTATZEARI BURUZKO

INFORMAZIO-DOKUMENTUA

Eramangarritasuna da operadorez aldatzean telefono-zenbakia mantentzeko aukera ematen duen prozesu arautua. Eramangarritasunak berekin dakar erabiltzaileak uzten duen operadorean baja ematea (operadore emailean), eta kontratatzen den operadorean alta egitea (operadore hartzailean).

Eramangarritasuna eskatutakoan, prozesua ezezta daiteke. Ezeztatze hori doakoa da erabiltzailearentzat.

Eramangarritasuna ezeztatzeko eskubidez baliatzeko, datu hauek eman behar ditu erabiltzaileak: pertsona fisikoen kasuan: NANA eta aldatu beharreko mugikorraren zenbakia. Pertsona juridikoen kasuan, berriz, bertan behera uzteko eskaera horretarako baimena duen pertsonak egin behar du, eta hauek eman behar ditu: IFZ, ahalordetze-eskitura, aldatu beharreko mugikor-zenbakia.

Edozein unetan utzi ahal izango da bertan behera erabiltzailearen eramangarritasun-eskaera, hark hala eskatzen badio, eskaera egiten den unetik aldaketa gauzatu aurreko eguneko 14:00ak arte. Une horretatik aurrera, ezin da bertan behera utzi aldaketa.

Erabiltzaileak bertan behera utz dezake eramangarritasun-eskaria, aipatutako epe horien barruan betiere, bide hauetatik edozein erabiliz:

Euskaltelen banaketa-sarean: 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 19:00etara, astelehenetik ostiralera.

Etxeke bezeroek: 1717ra deituz, 9:00etatik 22:00etara, astelehenetik ostiralera.

Enpresa merkatuko bezeroek: 1771ra deituz, 9:00etatik 22:00etara, astelehenetik ostiralera.

Euskaltelen webguneko formularioa erabiliz: www.euskaltel.com. Onlineko formularioaren bidez egindako ezeztatze-eskariak astelehenetik ostiralera kudeatuko dira, 9:00etatik 22:00etara.